

# **ARRASATE R.T 22 BRT MENDITARRAK 21**

Pasa den Larunbatean BRT Menditarrak taldeak denboraldiko lehenbiziko porrota jaso Zuen Arrasaten, aurre ikusten zen bezala, oso partido gogorra eta lehiatua izan zen, non azkenean, Arrasate nagusitu egin zen puntu batengatik.

Etxeko taldeak oso serio hartu zuen neurketa hasiera hasieratik, izan ere, 3. Minutuan markagailua estreinatu zuten, “ Touch” on bat eta gero jokaldi eder bat egin zuten 7-0a ezarriz. Ondoren, Baztandarrak etxeko taldearen zelai erdira Joan ziren eta Aitor Adinek makil artetik pasatutako zigor kolpe baten bitartez 7-3 jarri zuten. Ostikoak nagusi izan ziren partido honetan, bai metroak eskuratzeko bai puntuak egiteko, hori dela eta, Gipuzkuarrek printzipio hori jarraituz 10-3a jarri zuten 10.minutuan.

Nafarrek, distantziak murriztu zituzten 17.minutuan, 10-6. Eta atsedenaldira iritsi aurretik,Zigor kolpe bana pasatu zuten makil artetik bi taldeek. Hori dela eta, 13-9a ageri zen markagailuan.

Bigarren zatian Baztandarrak Oso zentratuak atera ziren eta 47. Minutuan Aitor Adinek bere taldea aurretik jarri zuen entsegu baten bitartez 13-14. Arrasatek ez zuen amore eman, eta taktikoki jokatu, joko Baztandarren zelaira eraman zuen eta hiru zigor kolpe makiletatik pasa eta gero markagailuan 22-14a ikusten zen 70.minutuan. Markagailua Iraultzen saiatu zen BRT, baina, Iban Mutilva jokalaria azken minutuan lortu zuen enstegua berandu izan zen. Beñat Vielak itxi zuen Markagailua, 22-21.

## **CAS**

El pasado Sábado el BRT Menditarrak sufrió la primera derrota de la temporada en Mondragón, como se esperaba, un partido muy duro y disputado, en el que el Arrasate R.T se impuso por un punto.

El equipo local se tomó muy en serio el choque desde el inicio, ya que, en el minuto 3 de partido estrenaron el marcador, tras una buena "touch", realizaron una gran jugada estableciendo el 7-0. Los baztandarras reaccionaron desplazándose al campo del equipo local, y por medio de un golpe de castigo que Aitor Adín pasó entre palos pusieron el 7-3 en el marcador. Las patadas fueron protagonistas en este partido, tanto para hacerse con el territorio como para hacer puntos, los guipuzcoanos siguiendo ese criterio pusieron el 10-3 en el minuto 10.

Los navarros acertaron distancias en el minuto 17, 10-6. Y antes de llegar al descanso, Ambos equipos pasaron sus respectivos golpes de castigo entre palos. Por ello, el marcador ilustraba un 13-9 en el descanso.

En la segunda parte, los baztandarras salieron muy centrados y en el minuto 47, Aitor Adín adelantó a su equipo mediante un ensayo 13-14. El equipo local no se rindió, y jugando tácticamente, llevó el juego al campo baztandarra y después de pasar tres golpes de castigo por los palos, el 22-14 era visible en el marcador a falta de 10 minutos del pitido final. El BRT intentó darle la vuelta al marcador, pero el ensayo logrado por el jugador Iban Mutilva en el último minuto fue tarde. Beñat Viela cerró el marcador, 22-21.